


Heri Aldizkaria

Otamotz

1997ko urria 28. alea


San
Martinak
ospatu
dira
Agiñan

Soldadus-
karako
zozketa



ESKOLA KIROLEKO GEHIGARRIA

Harro gaude
zuri hain
automobil
aseguru osoa
eskaintzeaz




SEGUROS LAGUNARO
ASEGURUAK

Agiñako argazkiak



ZUTIK :Elena Poyo, irakaslea;Eulogio Alberdi, Muxikakoa;Iñaki Zabalo, Arkikoa; Arantxa Aranmendi, Urdanbieta; Isabel Alberdi, Muxikakoa eta Joxepi Plazaola, Abendañokoa.

ERDIAN: Kati, Antonita, Elena Begiristain, Muxikakoa; Marivi Etxaniz, Kortaberrikoa; Mariaje Begiristain, Muxikakoa; Inaxio Alberdi, Muxikakoa eta Esperanza.

ESERITA: Claudio Cuadrado, Jesus Plazaola, Zumakortakoa, Jose Mari Begiristain, Muxikakoa, Miguel Aramendi, Urdanbietakoa; Jose Mari Etxaniz, Kortaberria; Jesus Mari Etxaniz, Kortaberrikoa eta Nikolas.



ATZEAN:

Elena Begiristain, Muxikakoa; Marivi Etxaniz, Kortaberrikoa; Bittori Agirrezabal, Etxetxikikoa; Jose Mari Begiristain, Muxikakoa; Jose Mari Etxaniz, Kortaberrikoa; Jexux Mari Etxaniz Kortaberrikoa; Miguel Aramendi, Urdanbietakoa eta Jexux Plazaola, Zumakortakoa.

ERDIAN: Elena Cuadrado, Irakaslea

AURREAN:

Miguel Mari Estonba, Martiamunokoa; Arantxa Begiristain, Muxikakoa; Jexux Agirrezabal, Etxetxikikoa; Iñaki Estonba, Martiamunokoa; Miguel Etxaniz, Kortaberrikoa eta Jose Manuel Agirrezabal Etxetxikikoa.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20.700 Urretxu. Tel:725775 **Erredakzio kontseilua**: Unai Alzelai, Jon Balenziaga, Aitor Esnal, Jonmikel Insaustii, Sebas Iturrioz, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa. **Diseinua**:Sebas Iturrioz. **Informatikaria**: Jonmikel Insaustii. **Inprimategia**:GERTU Koop. E (Zubillaga. Oñati) **Lege Gordailua**:SS-742/96 **ISSN**:1136-7318 **Tirada**:2.000 ale. **Edizio digitala**: <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Agiña, toki paregabean dagoen Zumarragako auzoa

Udazkenarekin, San Martin eguna. Afariak elkartetan, festak kalean eta Agiñan. Agiñara, hain gertu eta aldi berean hain urruti dagoen auzorantz, abiatu gara eguzki goxoa lagun. Plazan, dantzariak, aizkolariak, bertsolariak... Elkartean jateko eta edateko ugari, odolkia ez zen falta horixe! Inguruan mendiak inoiz baino ederrago.

Agiña hobeto ezagutzeko gogoia piztu nonbait eta jakinmin hori asetzeko honako solasaldi hau izan dugu Patxi Plazaolarekin.

Noiz eta zergatik elkartu zen Agiña Zumarragara?

Agiña betidanik izan da Azkoitiko auzoa, baina Zumarraga Azkoiti baino gertuago dagoenez, agiñarrek bizimodua Zumarragan egin izan dugu beti.

Azkoitiarrak izanik, eskolara Zumarragara joan izan gara agiñarrek eta erosketak egitera ere Zumarragara joateko joera izan dugu. Azkoitira udaletxera bakarrik joaten ginen.

Telefonoa jartzerako orduan ere arazoak izan genituen, Azkoititik jartze-ko milioi bat pezeta pasatxo ordaindu behar genuela esan ziguten, azkenean Zumarragatik jarri genuen 200.000 pezetaren truke.

Antzeman al duzue desberdintasunik azkoitiarrak a la zumarragar- rrak izatean?

Gu lehengo agiñarrak gara, harro gaude bertakoak izateaz. Erosotasu-
nean, komodidadean irabazi dugu
aldaketarekin, gainontzekoan berdint-
su gaude.

Azkoitiko udaletik ez genuen dirula-
guntza handirik jasotzen erabat ahaz-
tuta geunden eta orain ere nahiko baz-
tertuta gaude.

Zumarragara elkartu ginenean plazan
hormigoia bota eta argiak jarri ziren
baina ondoren ez da ezer egin.

Zer falta da Agiñan?

Aspaldian gabiltza frontoi eske.
Zumarragara pasatu ginenean egingo
zela agindu ziguten baina eskean
jarraitzen dugu. Bestalde, hilean
behin igande goizetan eta egun
garrantzi-tsuetan meza ospatzen da
Agiñan, entierroak ere bertan egiten

dira, baina eliza egoera
txarrean dago. Eliza
konpontzeko dirula-
guntza ere eskatzen
dugu.

Garai bateko eskola
Zumarragako udalarena
da eta 20 urtetarako
soziedade moduan era-
biltzeko baimena dugu,
hau eskertzekoa da.


Tabnaren beharrik ez al duzue somatzen?

Bai, taberna faltan
botatzen da. Jende asko
joaten da Agiñara
oinez, eta mendi buelta
oso politak egin daitez-
ke Agiña inguruan.
Tabernak bizitasuna
emango lioke auzoari,
bertara oinez inguratzen
diren herritarrek eta
mendizaleek zerbait
edan eta jateko aukera
izango lukete modu
honetan.

Garai bateko taberna
hutsik dago, zabaltzekotan ibili dira,
baina konponketa handiak egin behar
direnez ez dira
zabaltzen ausar-
tu. Zumarraga-ko
udalari bertako
taberna hartu
nahi duenari la-
guntzaren bat
emateko eskatu
nahiko genioke.

Zenbat biztanle ditu Agiñak une honetan?

60 lagun bizi gara
bertan, 16 baserri
daude, eta 2 hut-
sik daude. Jende
gazte asko dago
Agiñan, denek
kalean lan egiten



dute baina bertan bizitzen gelditzeko
etxea egin duenik ere bada. Azkoititik
Agiñara bizitzera etorritako beste
familia bat ere badago.

Etorkizunari begira zer asmo duzue?

Udaletik laguntzarik jasoko bagenu,
gauza gehiago egingo genituzke.
Apaiz etxea hutsik dago eta hau ater-
petxerako egokitzea ideia ona dela
iruditzen zaigu. Agiñari bizitasuna
emateaz gain, zumarragarentzat ere
onuragarria izango litzateke turismo
aldetik.

Zer moduz San Martinak?

Agiñako festetan, San Martinetan
jende ugari inguratzen da bertara.
Estimazioa du Agiñak. Ondo, oso
ondo ibili gara.



Zumarragako udalak urtero Jose Mari Busca Isusiren omenez, antolatzen duen **Buzkantza lehiaketa**, aurten abenduaren 7an Euskadi enparantzan egingo da, Santa Lutzi aurreko igandean hain zuzen ere.

Aurtengo lehiaketan hainbat aldaketa izango dira, izan ere, lehiaketan parte hartzen duenak, lehiaketan parte hartzeaz gain, bere buzkantzak erakutsi eta saldu ahal izango ditu.

Lehiaketarako bi kilo buzkantza ekarri beharko dira, eta erakusketarako beste bost; saltzeko, berriz, nahi beste.

Parte hartzeko asmoa duten harakinek aldez aurretik izena eman beharko dute Zumarragako udaletxean, 723000 telefono zenbakira deituz, abenduaren 1eko eguerdiko ordu biak baino lehen.

Aurtengo urtean banatuko diren sariak honako hauek izango dira:

1.saria, 50.000pta + prentsako iragarkia + garaikurra.


2.saria, 50.000pta

3.saria Aurkezpen onenari 30.000 pta



Goierrri mendiz mendi ibilbideak

Goierrri mendiz-mendi gida kaleratu dute UGASSA, GOIEKI eta GOIMENek, Gipuzkoako Mendi Federazio eta kolaboratzaile ugariaren laguntzarekin batera. Guztira 53 ibilbide biltzen dituen gida honetan, Urola Garaiko 10 ageri dira: Urretxu eta Legazpitik bina ibilbide eta Zumarraga eta Ezkiotik hiruna. Gida honen helburuetariko bat, turismoa gure eskualdera erakartzea da. Ondorioz, inguruko nekazalaxe bakoitzetik ibilbide bat igarotzen da. Bi urte behar izan dituzte gida egiteko eta 3.000 ale plazaratu dituzte, 1.000 ale euskaraz eta 2.000 erdaraz. Salneurria 2.400 pezetakoa da eta urrutira joan gabe Urretxu eta Zumarragako liburutendetan eskura daiteke.



San Martinak Urretxun

Urretxuko San Martin auzokoez urtero bezala San Martin jaia ospatu dituzte aurten ere. Hilaren 11an, iluntzean, Ederrena pilotalekura inguratutakoei odolki beroa eta ardoa eskaini zieten auzokoez. Urtean ohitura izan da egun horretan koadrilek afariak egitea baina azken urteotakoa ikusirik, indarra galtzen ari den ohitura dela dirudi.

Gose greba


Zumarragako, Legazpiko, Lazkaoko eta Goierriko zenbait herriak hamar lagunek Euskal Herriko presoek pairatzen duten egoera salatzeke asmoz, aste beteko gose greba burutu dute Zaldibian, honekin batera herrietan zenbait ekintza egin dituztelarik. Goierriko 28 presoek duten egoera azaltzeaz eta salatzeaz gain, presoek sakabanaketak sendiei suposatzen diena azpimarratu zuten eta presoek Euskal Herrian bertan egoteko duten eskubidea aldarikatu zuten. Mendizabal, Murua eta Iraola bertsolariak, bertsolariaren izenean, Aitor Furundarena musikariak eta Goierriko zenbait zinegotzik eta alkatek beraien atxikimendua adierazi zuten.



Soldaduska egin, objektore izan ala intsumisoa?

Azaroan, soldaduskara joan behar duten gazteen zozketa egin da eta berriro ere derrigorrezko soldadutza, objekzioa eta intsumisioari buruzko eztabaidak sortu dira gizartean.

Intsumisioen aldeko mugimendua erabat gizarteratua dago Euskal Herrian eta baita Urretxu eta Zumarragan ere. Izan ere, Zumarragako alkate ohia, Jose Julian Irizar, ejerzitoari laguntza ez emateagatik, eta soldaduskara joan behar zuten gazteen zerrendak egiten ez laguntzeagatik epaitu eta zigortua izan zen. Joseba Villarreal legazpiarrak, EUDIMA, Euskal Herriko Udal Intsumituen mankomunitateko idazkaria denak, gaiari buruzko xehetasun ugari eman dizkigu.



Zer aldarrikatzen duzue intsumisioek?

Mota desberdinetako antimilitarismoa dagoenez, aldarrikapenak desberdinak dira. Ejerzito espainiarrari eta zerbitzu militar espainiarrari intsumisio direnak daude batetik. Bestalde, edozein ejerzitori intsumisio direnak daude. Hala ere, intsumisio guztiek zerbitzu militararen aurka gaude, horretan bat gatoz denak.

Zein da intsumisioen gaur egungo egoera?

Orain arte egindako lanarekin legeak aldaraztea lortu da eta intsumisioen aldeko mugimendua gizartean barneratzea ere lortu da. Gainera, pentsakera desberdinetako jendea intsumisioaren aldeko borrokari elkartu zaio. Egungo egoera motelagoa da, intsumisioen kopuruak ez du behera egin, baina komunikabideetan gaiari

buruz egiten den tratamendua duela urte batzuk bezain ugaria ez denez, ejerzito profesionala handitu denez, eta egun, kondenetan kartzela zigorra ezartzen ez denez, gizartearen borroka ahuldu egin du.

Zertan desberdintzen dira dau-den intsumisio motak?

Batetik soldadutzaren aurrean intsumisioak direnak daude, hauek toki publikoetan lan egiteko 10-14 urte

Lanbica

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 ☎ 72 41 61

LIBURUENDAK

GANBARA

Labeaga, 52
☎ eta faxa: 72 50 45

bitarteko inabilitazio kondena jasotzen dute. Honetaz gain, 6 hilabete eta bi urte bitarteko kartzela zigorra ere jaso dezakete. Halere, aurrekari penalik ez izanez gero ez da kartzela zigorrik ematen, beraz, kartzela zigorra selektiboa da.


Bestalde, PSS edo OZSren aurrean, hau da, Ordezko Zerbitzu Sozialaren aurrean intsumisoak direnak daude. Hauek, hasieratik objektore egiten dira, soldaduskara deitutakoan ez dira joaten eta ondorioz, 8-10 urte bitarteko gaitasungabetzea, 12-24 hilabeteko kartzela zigorra eta 160.000 pezeta inguruko izun ekonomiko ezartzen zaie.

Egun, intsumiso asko epaitzen dira. Epaiketa hauetan ezarritako inabilitazioak bekak lortzeko garaian, lanpostu publikoetan lan egiteko orduan edota babes ofizialeko etxeak eskuratzeko izan beharko lukete eragina, baina zigortzeko interes politikorik ez dagoenez, inabilitazio hauek guztiak ez dira indarrean jartzen.

Zer egin behar da intsumiso izateko?

Zozketatu arte ez da ezer egin behar. Ondoren, soldaduskara joateko jarritako eguna iristen denean intsumisoa ez da bertara joan behar. Honetaz gain, gobernuak bidalitako agiri guztiak, soldaduskara joateko asmo eza adierazten duen gutunarekin batera, itzuli behar dira. Hau eginez gero intsumiso izango dira eta epaiketaren zain egon beharko dute. Herritarrek lehenengo epaiketa Bergaran izaten dute, ondoren Donostiako Auzitegi Nagusian. Objektore, berriz, soldaduskara joan behar den aurreko egunera arte egin daiteke. Orain legea aldatu nahi da, soldadutzarako zozketa egin aurretik eman behar izango da objektore izateko izena.

JON GASTON, soldaduska egiten ari da



Arakan, Gasteiz ondoan, soldaduska egiten ari naiz. Ideologiagatik ez, noski, baina nituen aukeren artean, amaitzeko epe laburrena behar duen aukera da. Urtebete galtzeaz gain dirua ere galtzen da, bertan, 1.500 pezeta hilabetean irabazten baitugu. Ikasketak amaitu eta soldaduska egin ondoren lan aukera handiagoa dagoela pentsatzen dut. Halere, gaur egun intsumiso eta objektoreak lantegietan ez daudela horren gaizki ikusiak onartzen dut. Arakako bulegoetan egiten dut lan eta asko aspertzen naiz ez baita egitekorik izaten. Buruen artean denetik daukagu. Batzuekin lasai hitz egin daiteke, futbolari buruz adibidez. Eztabaida ugari izaten dugu Real Madrileko zale amorratuak baitira gehienak. Armamentua eta materiala orokorrean oso zaharrak dira. Oraindik ez naute inoiz zigortu eta gaur, testu hau idazten ari naizen egunean, 84 egun falta zaizkit soldaduska amaitzeko. Amaitzean, koadrilarekin afaria egingo dut mendiko borda batean eta soldaduska erropa, sutara botako dut, San Juan su txiki bat eginez.

KOLDO AGIRRE, intsumisoa



Abuztuaren 20an soldaduskara joan behar nuen Arakara, baina nire ideiekin konsekuentea naiz eta ez dut joateko asmorik. Zozketa egin beharrik ez dagoela uste dut. Soldaduska profesionala izan beharko litzateke, ez litzateke inposatu behar. Gainera Espainia ez da gure herria. Bergarako epaitegitik deitzeko zain nago. Egun, aurrekari penalik ez duten intsumisoek ez dute kartzela zigorrik jasotzen. Dena den, intsumiso izateagatik ez lukete inor zigortu behar.

Norberak aukeratu beharko luke soldaduskara joan edo ez aukera librean beharko luke.

TXIKIMOTZ

ESKOLA KIROLEKO I. GEHIGARRIA



*Hilabete honetatik aurrera Otamotz aldizkariak eskola kirolari buruz jardungo duen **TXIKIMOTZ** izeneko gehigarri bat izango du. Bertan hilero eskola kirolean gertatzen diren tira-birak azalduko dizkizuegu, emaitzak, sailkapenak, argazkiak eta abarren bidez.*

Bestalde gure inguruan kirol munduan zer esana duen jendeari elkarrizketak egingo dizkiogu ; bertan kirolari ezagunak, entrenatzaileak edo ta eskola kirolean parte hartzen duen edozeinek izango du elkarrizketatua izateko aukera.

TXIKIMOTZ



Joanes Jaka
eta Jon Egia,
eskola
kiroleko parte
hartzailak

ATLETISMOKO EMAITZAK

97-11-15

ALEBIN MAILA

60m. MUTILAK

1. Seriea

- 1.-Eneko Ausin (Haztegi A)
- 2.-Mikel Zabaleta(D. Agirre)
- 3.-Xabi Plazaola (L.Ama A)

2. Seriea

- 1.-Jon Rodriguez (Gainzuri)
- 2.-Joanes Jaka (L.Ama A)

60m. NESKAK

- 1.-Garazi Jaka (Haztegi A)
- 2.-Ainhoa Zubizarreta (Haztegi C)
- 3.-Elena Roldan (L.Ama)

60m. Hesiak.MUTILAK

1. Seriea

- 1.-Mikel Aramendia (Gainzuri)
- 2.-Jon Eska (L.Ama A)

2. Seriea

- 1.-Andoni Rodriguez (La Salle A)
- 2.-Ruben Diez (D.Agirre)

60m. Hesiak.NESKAK

- 1.-Maddi Alkorta (Haztegi C)
- 2.-Alaitz Muxika (Haztegi C)

Pilota Jurtiketa.MUTILAK

- 1.-Igor Arrondo (Haztegi A)
- 2.-Gaizka Arandia (D. Agirre)
- 3.-Unai Plazaola (L.Ama)

Pilota Jurtiketa.NESKAK

- 1.-Elena Roldan (L.Ama)
- 2.-Laura Leon (Haztegi A)

Luzera jauzia.MUTILAK

- 1.-Mikel Castillo (Haztegi)
- 2.-Heber Castillo (La Salle A)

Luzera jauzia.NESKAK

- 1.-Ane Arrondo (Haztegi A)
- 2.-Leire Lanberri (L.Ama)

Altuera.MUTILAK

- 1.-Jon Telleri (Haztegi A)
- 2.-Ekain Hernandez (Haztegi E)
- 3.-Markel Irizar (L.Ama A)

Altuera.NESKAK

- 1.-Ane Arrondo (Haztegi A)
- 2.-Elena del Couto (Haztegi C)

Pisua.MUTILAK

- 1.-David Larusa (La Salle A)
- 2.-Egoitz Zarandona (Gainzuri A)

Pisua.NESKAK

- 1.-Elena Roldan (L.Ama A)
- 2.-Saioa Pinero (Haztegi A)

2000m.MUTILAK

- 1.-Jon Egia (L.Ama A)
- 2.-Mikel Garziandia (Gainzuri A)
- 3.-Joseba Bizuete (La Salle A)

Altuera.NESKAK

- 1.-Janire Perez (L.Ama)
- 2.-Karmele Gil (Haztegi C)

4x60m.MUTILAK

- 1.- Haztegi A
- 2.- Haztegi E
- 3.- D. Agirre
- 4.- L.Ama
- 5.- La Salle A
- 6.- Gainzuri A

4x60m.NESKAK

- 1.- Haztegi A
- 2.- Haztegi C
- 3.- L.Ama

INFANTIL MAILA

Hirukoitza.MUTILAK

- 1.- Imanol Mordillo (La Salle)
- 2.- Eneko Kortaberria (L.Ama)
- 3.- Jon Aristi

Hirukoitza.NESKAK

- 1.- Uxue Fernandez (L.Ama)

200m hesiak.MUTILAK

1. Seriea


- 1.-Joseba Iglesias (L.Ama A)
- 2.-Haritz Egea (L.Ama A)

2. Seriea

- 1.-Eneko Kortaberria (L.Ama A)
- 2.-Julen Verde (L.Ama A)

200m hesiak.NESKAK

- 1.-Maite Perea (Haztegi)
- 2.-Uxue Fernandez (L.Ama A)



La Salle B taldeko neskak, partidu bikaina jokatu ondoren

BENJAMIN MAILA

Futbol aretoa.

Gainzuri B - La Salle B	10 - 5
Gainzuri C - La Salle C	4 - 4
Gainzuri A - Haztegi E	4 - 6
D.Agirre B - L.Ama D	16 - 1
D.Agirre A - La Salle A	4 - 5
La Salle D - Haztegi B	8 - 6

FUTBOLEKO

EMAITZAK

(97-11-15)

INFANTIL MAILA

Futbola. NESKAK. (1.taldea)

Olazabal B - La Salle B	4 - 0
La Salle C - L.Ama B	0 - 0 Ez aurk.
Haztegi A (Atsedena)	

	J	I	B	G	Pt
1.-La Salle C	3	3	0	0	9
2.-Haztegi A	2	1	1	0	4
3.-Olazabal B	2	1	0	1	3
4.-La Salle B	3	0	0	3	0
5.-L.Ama B	2	0	1	0	1

INFANTIL MAILA

Futbola. NESKAK. (2.taldea)

Olazabal A - Iparragirre	3 - 2
L.Ama A - Haztegi B	3 - 4
La Salle (Atsedena)	

	J	I	B	G	Pt
1.-Haztegi B	2	2	0	0	6
2.-L.Ama A	3	2	0	1	6
3.-Olazabal A	2	1	0	1	3
4.-Iparragirre	3	1	0	2	3
5.-La Salle A	2	0	0	2	0

KADETE MAILA

Futbola. NESKAK.

La Salle - Haztegi	0 - 3
Olazabal - L.Ama	0 - 6
Iparragirre (Atsedena)	

	J	I	B	G	Pt
1.-Haztegi	3	3	0	0	9
2.-L.Ama	4	3	0	1	9
3.-La Salle	3	1	0	2	3
4.-Iparragirre	3	0	1	2	1
5.-Olazabal	3	0	1	2	1

TXIKIMOTZ

ALBERTO ALEJANDRO: ERREALAREN LEHEN TALDEAN JOKATZEA DA NIRE AMETSA



HERRIA: ZUMARRAGA
ADINA: 18 URTE
TALDEA: ERREALEKO JUBENIL MAILA
GOLAK: 95-96 DENBORALDIAN 30
96-97 DENBORALDIAN 17
2 URTETAN BERE TALDEKO
GOLEATZAILERIK ONENA
IZAN DA.

**LEHENENGO ATHLETIC- EK DEITU
ZIDAN ETA ONDOREN, ERREALEKOAK
NIREKIN JARRI ZIREN HARREMANE-
TAN. GURASOekin HITZ EGIN ETA
GÉRO, ERREALERA JOATEKO ERABA-
KIA HARTU NUEN.**

**HURRENGO URTEAN ERREALAREKIN
DUEN KONTRATUA AMAITZEN EZ
ZAIONEZ, ERREALAREN BIGARREN
TALDEAN JOKATZEKO AUKERA IZAN-
GO DU, BERE AMETSA GERTUGO
IZANGO DUELARIK.**

**Zein asmo dituzu hemendik aurre-
ra futbolari dagokionez**

Ahalik eta urrutien iristea. Errealaren lehen taldean jokatzea izango litzateke nire ametsa.

Zein futbol taldetan ibili zara jokatzeko orain-arte?

Urola eta errealean. Urolan kadete maila arte egon nintzen, eta errealean jubenilen lehen urtetik hasita orain-arte.

Ba al duzu nolabaiteko harremanik errealeko lehen taldeko jokalariekin?

Iaz behin beraiekin entrenatu nintzen, eta bestela ia egunero ikusten ditut beraien entrenamenduetan.

Oso gogorra egiten al da erreala bezelako talde batean egotea?

Bai batez ere ikasketengatik. Oso nekatuta iristen naiz etxera gaueko 21:30 etan, eta afaldu ondoren ez dut ikasteko gogo handirik izaten.

Aritu al zara inoiz selekzioarekin jokatzeko?

Azken 3 urteetan Gipuzkoako zein Euskadiko selekzioarekin jokatu dut. Gipuzkoarekin Euskadiko txapelketa hainbat aldiz irabazi dugu, eta Euskadikoarekin iazko denboraldian Espainiako txapelkunorde izan ginen.

Berriz joateko aukerarik edo asmorik ba al duzu?

Euskadi eta Gipuzkoako selekzioekin ezin dut gehiago joan, 18 urtetik gorakoentzat ez baitago selekzioa joateko aukerarik. Aukera bakarra Espainiako selekzioa joatea izango litzateke, baina oso zaila da, selekzionatzaileak zerrenda bat izaten du, eta zerrenda horretan ez gaudenentzat oso zaila da selekzioarekin jokatzeko.

Espero al zenuen eskola kirola egiten zenuenean zauden tokiraino iristea?


Ez, ez nuen espero, ilusioa banuen gainontzekoek bezala, baina ez nuen espero errealean jokatzeko. Umetan ondo pasatzeko jokatzeko nuen, egun osoa baloia bespean nuela ibiltzen nintzen, eta behar bada horregatik iritsi naiz errealean jokatzera.

Zein aholku emango zenieke eskola kirolean dabilzan gaztetxoiei?

Nik esango nieke egunero gogotsu entrenatzen badute, eta dituzten akatsak zuzentzen saiatzen badira, aukera handiagoak izango dituztela ni bezala errealerako edo hone-lako beste talderen batera iristeko.




Ba al duzu perretxikotara joateko ohiturarik?



Jesus Orbegozo

Zaletua naiz, larunbatetan joaten naiz perretxikotara.

Aurten ez ditut gehiegi bildu. Neronek jaso eta lagunek emandako perretxikoez bakarrik fidatzen naiz.




Felix Garcia de Albeniz

Ez dut perretxikotara joateko ohiturarik. Inoiz mendira joanez gero nikaloak hartzen ditut. Lagunek emandako perretxikoez fidatzen naiz, lagun batek emandako bi lanperna jan berria naiz eta ondo goxoak zeuden.




Ino Ugarteburu

Besteek bidutakoak nahiago ditut nik! Ez naiz gehiegi fio, ezagutzen ditudanak bakarrik jaten ditut, onddoak eta gibelurdinak. Iaz jangarriak ez ziren pardilak jan genituen eta ia ospitalera joan behar izan genuen, kalte egin zigutelako.



Ignacio Azkarate

Bai oso zaletua naiz, 50 urte daramatzat perretxikotara joanez, Otzaurtera, Lizarrustira... joaten naiz perretxiku bila. Perretxiku onak eta txarrak ondo bereizten ditudala uste dut.



Cipriano Arranz

Ez naiz zalea. Iparragirre hil zen moduan ez naiz hilko. Txuleta eder bat nahiago dut.



Nerea Ruiz

Badut joateko ohitura aurten hala ere apenas joan naiz. Fidatzen naiz ezagutzen ditudan perretxikoak bakarrik hartzen ditudalako. Aurten nikalo gutxi eta lanperna asko dago. Onddoak ere gustatzen zaizkit.



BAPRI

Animaliadenda

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13

Argitarapen honen edizioko laguntzailer:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurria

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Ehiztariak udazkenean haizeari eta eguraldi iragarpenerari begira

Zumarragan, Samiño eta Izazpi inguruan, diputazioarenak izan arren, Galeperra elkarteak kudeatzen dituen 53 ehizerako postu jartzen dira urtero udazkena heldu orduko. Ehiza denboraldiak irauten duen bitartean, urrian eta azaroan, astelehenetik ostiralera, iluntzero postuen zozketa egiten da Galeperran.

Ehiztariak oso ondo dakite eguraldiak eta batez ere haizeak hegaztien pasoa baldintzatzen dutela. Horregatik ehiza denboraldian inoiz baino kasu gehiago egiten diete eguraldi iragarpenei. Aurten, hego haizea nagusi izan den egunetan 150 lagunetik gora bildu dira Galeperran, baina egun euritsuetan apenas 15 lagun hurbildu da beratara postu bila:

Galizia eta Portugaleko haizeak txarrak omen dira Zumarragan ehizatzeke, baina kostaldean berriz sekulako pasoa izaten da haize hoiekin.

Zumarragako postuak oso merkeak dira. 53 postuek berdin balio dute baina Galeperrako bazkideek eta federatuek gutxiago ordaintzen dute. Postu bakoitzean bi lagun egon daitezke gehienera eta zozketa irekia

da. Elkarteko bazkideez gain, herriko gainontzeko ehiztariak eta kanpotarrek har dezakete parte bertan. Azkoitiarrak eta Azpeitiarrak dira ostiralero zumarragara astebururako postu bila etortzen diren kanpotarretan ugarienak.

Ehiztarien salaketak

Ekologistek eta zenbait herritarrek ehiztariak kritikatu eta salatzen dituzte ingurugiroa zaintzen ez dutelako eta izaki bizidunak akabatzen dituztelako.

Gonzalo Gil ehiztariak eta Galeperrako Zuzendaritza Batzordeko kideak, ehiztarien arteko errespetoa, mendia ahalik eta garbien mantentzearen aldeko jarrera eta txorikumeak ez ehizatzearen aldeko jarrera aldarrikatu du behin eta berriz. Aldi berean mendian ehizean ibili ondoren, kartutxoak edota hamaiketakoaren hondarrak, zikinkeria bertan uzten duten ehiztariak eta txorikumeak tirokatzen dituztenak gogor salatu ditu.

Bere esanetan ehiza denboraldiak irauten duen bitartean, mendi goardia gehiago ibili beharko litzateke postuen inguruan. Modu hone-



tan ehiztariak gaizki eginda-koak kontrolatuko liratezke. Dena den denboraldia bukatzean postuen ingurua garbitu beharra izaten du Galeperrak eta hala egiten du. Garbitu ondoren goardia joaten da ingurua behar bezala dagoen ikuskatzera.

Inon idatzita ez dagoen arren, ehiztari guzitek eza-gutu eta gehienek betetzen duten araua errespetoarena da.

Postuetan garrantzia ematen zaio, ehiztari guztiek ehizatzeke aukera izateari. Zenbait postutatik ezin izaten da

hegazti taldea gainean izan arte ikusi eta orduan tiro egin eta asmatzeko beranduegi izaten da. Hegazti taldearen etorrera errez ikusi dezaketen postuetakoek, gainontzekoei abisua pasa behar izaten diete txistu eginez.

Honetaz gain, tiro egiteko uea ere kontutan izan behar da. Hegaztia ikusi orduko tiro eginenez gero, txori taldea izutzea eta desegitea lortzen da eta ondorioz, gainontzekoek ez dute txoririk botatzeko aukerarik izaten.

Ehiza motak eta txakur- raren garrantzia

Postuetan pasoaren arabera ehizatu behar da. Orduak egiten dituzte ehiztariek txoriak noiz etorriko zai. Gonzalo Gil-ek nahiago izaten du ehiza librean txakur-ekin ibiltzea. Bere esanetan txakurra da ehiztaria, txakurrak ikusi eta jarraitzen du hegaztia, ehiztariak tiro besterik ez du egiten. Ehiza mota hau postuetakoa baino dibertigarriagoa da.

Iledun animaliak, basurdeak untxiak... harrapatzeko txakurrak eta lumadun animaliak, hegaztiak harrapatzeko txakurrak daude. Pazientzia handia behar izaten da txakurrari ehi-zean nola egin irakasteko, baina ehiztariek ikaragarri aha-
legintzen dira lan honetan. Ehizerako txakurrak oso garestiak izaten dira, ehiza txakur bategatik miloi bat pezeta ordaindu duenik ba omen dago.

Txakurra bakarrik ez, ehizara-ko materiala ere oso garestia da eta Zumarragako postuak merkeak badira ere gipuzkoar askok Otzaurten, Araban et Burgosen alokatzen dituzte denboraldirako postuak 500.000 pezetatik gora ordain-
duz.

Milioika

Milioika dira penintsulara Eskandinaviatik datozen hegaztiak urtero, eta milioika ere sukaldeko lapi-koetara pasatzen direnak egunkarier-
tan azaltzen diren estatistikak jarraitzen baditugu. Hauek diotenez, penint-
sulara datozen 10 hegaztietatik 4 besterik ez dira itzultzen *etxera*. Horietatik 1 hil egingo da bidean arrazoi natura-
lengatik eta gainontzeko 5ak ehiztarien esku geratuko dira.

Iturrien arabera (DV, 97-X-26), espainiar estatuko milioi t'erdi biztan-
lek ehiztaritzat hartzen du bere burua. Hego Euskal Herrian 60.000 lizentzia daudelarik (50.000 Gipuzkoa eta Bizkaia artean), ez al da ehiztari gehie-
gitxo halako esparru geografiko txiki baterako? Kalkuluekin jarrai genezake, eta Naturara zenbat mila tona berun botatzen duten ere kalkula genezake. A ze paradoxa! Europar Elkar-
teko azkeneko arauak diotenez, edaten dugun ura kutsa ez dadin, etxe zahar guztietako berunezko tutuak alda dai-
tezen arautu du. Noiz arautuko da Natura berunez ez kutsatzea? Noiz jasoko dituzte ehiztariek ehiza-postue-
tan uzten dituzten zabor eta plastikokartutxo huts horiek guztiak? Eta honetaz gain, noiz utziko diote (ehizta-
ri batzuk) ehiza-postuetan edateari?

Honekin ez dut ehiztarigoa oro-
kortu nahi —badakit ehiztari abste-
mioak ere badirela, eta sasimendizale (zikin) asko ere badela (honetaz beste aleren batean jardun gintezke)— baina ehizak argi eta garbi, on baino kalte gehiago eragiten duela uste dut. 12 bat urte pasatxo daramat Euskal Herriko mendietan ibiliz eta jadanik ia denetarik ikusi dudala uste. Eta oraindik orain, etorkizunean gehiago ikusi-
ko dudalakoan nago.

Eta ehiztari jaun-andreak; ez hasi esanez ehiza aitak seme-alabei erakutsitako jarduera dela, antzinatek datorkigun ohitura balitz bezala ... gure arbasoek paleolitikoan eguneroko jana horrela lortzen omen zuten — oraindik oso ikuspegi bukolikoko dokumentalak ematen dira telebistan,

orain dela pare bat urte, K2000 (kon-
funditzen ez banaiz) ekoizleak ekoiztu-
tako eta ETBk emaniko programa batean ehiztari *fin* batek halako arra-
zonomendua adierazten ikusi bai-
nuen—. Diru gehiegi dago honetan, eta bizitzako esparru (askotan baino) guz-
tietan gertatzen den bezala, txanpona da errege.

Ehiztariek (hemen ezin dut plu-
ral hurbila erabili) eta mendizaleok Naturaz baliatzen gara gure aisialdi eta denbora libererako. Inguru berean mugitzen gara helburu arras desberdi-
nak izanik, batzuk hegaztiak libreki hegal egiten ikusi nahi ditugu. Beste batzuk ordea, nahiago dute usoak pla-
terean eta orein-burua saloiko paretan zintzilika izatea. Halere ere, denok kalte-
tzen dugu Natura era batean edo bes-
tean. Zikinduz, kutsatuz, animaliak molestatur ... eta bada garaia honen kontrako arautegia betearazi dadin. Eta araurik ez bada, arazo honen kontrako arautegi berria sor dadin.

Oraindik ez ote gara ingurugi-
roan eragiten ari garen kalteaz jabetzen? —250.000 tona metriko inguru ekoizten da Gipuzkoan (Euskaldunon Egunkaria, 96-II-11)— eta tona asko ere galtzen da naturak *irentsita*, erratza pasatu ondoren, alfonbrapean gor-
detako hautsa balitz bezala. Naturak nahikoa dela esan du —2000 urterako (animalia eta landare espezie guztien %20 desagertuko omen da—. Egun sinbolikoak bultzatzea (apirilaren 22a, Lurrako Mundu Eguna da), edo herri-
ko parkea txukuntzea eta hamar zuhaixka mota landatzea ondo dagoela uste dut. Baina, politikari jaun-andre-
ok, bada garaia naturaren txikizioa gutxitzeko erabakiak har ditzazuen. Ez gaitetzen gure ziborrari begira gehiago egon, Natura txikitzean bera gabe gu ezer ez garela esanez; Naturarengatik baino dena guregatik egiten ari garela onar dezagun. Beranduegi denean hasiko al gara lanean?

Jonmikel Insausti
Mendizale sasiekologista.

Herriko korrikalariak Behobia-Donostian

Dagoeneko jakina da aurten ere Behobia-Donostia probak arrakasta handia izan duela. Ia 11.000 mila korrikalari hartu zuten parte, eta egin beharreko 20 kilometroak egin ondoren, guztien artean azkarrenak, Antonio Perez Perales mutiletan, Angelines Rodrighez nesketan eta Joel Jannot ezinduetan izan ziren. Urretxu-Zumarragako 52 korrikalari amaitu zuten proba. Bizi-bizi ibilbidea laster batean egin zuena Rikardo Perez zumarragarra izan zen, 1:13:15eko marka eginez. Bera izan zen gure ordezkarien artean azkarrena.

Proba egin aurretik sinatuko al zenueke gero egindako marka?

Bai, dudarik gabe. 1:15etik jaitea nahi nuen eta azkenean egindako denborarekin oso gustura nago. Hala ere, anaiak duela urte batzuk egindako marka ez dut hobetu oraindik.

Behobia-Donostia dela eta, entrenamendu berezirik egin al duzu?

Entrenamendu berezirik ez baina gogorrak bai. Mugitegin, Legazpirako bidean eta Zumarragako bariantean zehar ibili naiz. Hasieran astean lau bider eta azkenengo hilabetean sei egun astean Igandean atsedeen hartzen nuelarik. Bestalde, azken hilabetean, alkohol tantarik edan gabe egon naiz.

Zure marka ez da txantxetakoa. Ez al zaizu burutik pasa ere egin atletismo munduan aritzea?

Federatzea ez dut nahi. Lotura bat suposatzen du urtean zehar hainbat lasterketetan lehiatu beharrak. Nahiago dut nire kontura, nik gustuko ditudan lasterketetan parte hartzea. Gainera ezin ahaztuko ditut larunbat gaueko irteerak. Ez, ezta pentsatu ere, nahiago dut orain bezala jarraitu.

Ibilbidean zehar, non ibili zinen eroso eta non larri?

Larrien Mirakruzen. Indarrak nahiko estu

nituelako eta aldapa gogorra delako. Eskerrak jendeak asko animatzen zuen. Gainturizketaraino nahiko ondo joan nintzen. Hor hasten da nire ustez benetako lehia. Horraino indarrak kontrolatzen joan nintzen eta gero erritmoa bizitu nuen helmugaraino. Jendearen animoak Pasaian nabaritzen dira gehien. Eskertzeoak dira jendearen animoak bestela erretiratu ere egingo ginatkeen...

Ze iritzi duzu Behobia-Donostia probari buruz?

Proba gogorra da baina gustukoa dut. Ondo prestatuta joan beharreko proba da bestela larri ibiltzen da.

Zenbait partehartzailek, Behobia-Donostian arazoak izaten dituzte irtetzerako orduan. Denbora asko galtzen dela esaten dute.

Nik dorsal gorria nuen eta ondo irten nintzen. Horretarako, ordea, 20 minutu lehenago lekua hartu behar izan nuen, azken beroketak egin gabe, hotzean irten nintzen. Lehen kilometroak erritmo lasaian egin nituen berotu eta martxa hartu arte.

Ze asmo dituzu aurrerantzean?


Aurten lehen aldiz Donostiako maratoian



parte hartuko dut. Esaten duten bezain gogorra den frogatu nahi dut. Hasierako kilometroak ondo egiten omen dira, arazoak, 30. kilometrotik aurrera datoz. Donostiako maratoia egin ondoren, lasaia go ibiliko naiz. Agian lasterketa herrikoietan parte hartuko dut, partehartzeagatik soilik. Gustuko dut korrika egitea eta urtean zehar, bi hilabetetan izan ezik, gainontzekoetan beti entrenatzen dut. Bestalde asteburuetak martxara itzuliko naiz. Behin maratoia egin ondoren, koadrilarekin poteatzeari ekingo diot.



Rikardo Perez argazkiaren eskuinaldean Behobia-Donostia proban lehia bizian



Santi Perez

Antonio Merino, Diego Garzia eta Koldo Irazuren entrenatzailea da urretxuar hau. Bigarren, hirugarren eta bosgarren izan ziren bere mutilak eta hori dela eta gustora dago. Egun horretan bizi den festa bikaina dela esan digu Santi Perezek baina Fortuna klubarekin, Behobia-Donostia antolatzen duen taldearekin, ez dago batere ados.

Bigarren, hirugarren eta bosgarren izan ziren zure atletak. Gustura al zaude egin zuten lanarekin?

Bai, gustura nago. Merino, proba irabazteko faboritoen artean zegoen. Europako kros txapelketara joateko gogor ari da entrenatzen eta momentu onean harrapatu zuen Behobia. Zoritxarrez, Mirakruzen behera, haize-minak jota ezin izan zuen irabazi.

Diego Garzia ere ondo aritu zen. Sukarrarekin ibili zenez ezin izan zuen behar bezala entrenatu. Lasterketaren hasieran gainera, haizeak gogor jotzen zuenez, tiraka ibili zen eta gero larrutik ordaindu zuen eginiko ahallegina. Hala ere, bera gustura zegoen egindako lasterketarekin. Irazuk egindako denborarekin ere gustora nago. Lana zela eta ezin izan zuen ondo entrenatu baina kalitate handiko atleta da.

Zer du Behobia-Donostia probak horrenbesteko arrakasta izateko?

Tradizio handiko proba hau hasieran erreleboka egiten

zen. Nik Berlingo maratoia-rekin konparatzen dut. Festa handia da. Familia osoak, koadrilak...hartzen dute parte eta ondoren bazkaria egiten dute. Zaletuen kopurua eta jarrera ikaragarria da. Perez Peralesek, aurtengo irabazleak, giroarekin liluratuta zegoela esan zidan.

Hala ere, lasterketa honen antolatzaileekin ez zaude gustura.

Kontuan izan behar da Fortuna Klubak etekin ekonomiko handia lortzen duela proba honekin eta zoritxarrez diru hori gero, ez da atletismoan inbertitzen. Atletismoa umeen artean suspertzeko edo ta antzeko zerbaitetan erabiliko balitz dirua, ixildu egingo nintzateke baina ez da hala. Gainera antolatzaileak ia negarrez agertu ziren komunikabideetan Eusko Jaurlaritzak diru laguntza ematen ez ziela eta. Zehazki, irrati batera deitzekotan egon nintzen antolatzaile bat diru laguntzarik gabe geratu zirela salatzen ari zenean. Irabazleei ez zaie inongo saririk banatzen.

Perez Peralesek, Euskal Herriko txapel tradizionala izateak sekulako ilusioa

egingo liokeela esan zidan baina nahiz eta lehenengoa izan, ez zioten txapelik eman. Koldo Irazuk, urtero aurrean ibiltzen den lasterkariak, inskripzioa ordaindu beharra izan zuen.

Entrenatzen ditudan korrikalariak egindako denborekin gustura nago baina nahiago nuke Behobia-Donostian parte hartuko ez balute

Lehen hirurak, Donostian lo egiteko aukera izan zuten aurreko egunean baina ez antolatzaileek ordainduta baizik eta Adidasek, beraien taldeak, ordainduta. Nahiago dut nik entrenatzen ditudan mutilak ez aritzea proba honetan. Korrikalarietzako dutxa falta ere nabaria izan zen.

Behobia-Donostian parte hartutako herritarren sailkapena.

Iturria:Fortuna

158	Perez Ricardo	1:13:15	Zumarraga	3521	Urbegain Bittor	1:36:19	Urretxu
266	Aranburu Asier	1:15:42	Zumarraga	3732	Ibarzabal Iñaki	1:37:12	Zumarraga
303	Martinez Benito	1:16:21	Urretxu	3734	Ibarzabal Xabier	1:37:13	Zumarraga
347	Mujika Carlos	1:16:53	Urretxu	3875	Ugarte Jon	1:37:52	Zumarraga
351	Larraza Roberto	1:16:58	Urretxu	4104	Urmeneta Ane	1:39:07	Urretxu
406	Pascual Julio	1:17:32	Zumarraga	4192	Viedma Jose Miguel	1:39:27	Zumarraga
875	Plazaola Pello	1:22:07	Zumarraga	4302	Lizarralde Joxe	1:40:01	Zumarraga
924	Lizarazu Aitor	1:22:22	Urretxu	4338	Veleda Ricardo	1:40:07	Zumarraga
930	Lizarazu Jesus	1:22:26	Urretxu	4748	Irure Jose Mari	1:41:41	Zumarraga
934	Benitez Jose Manuel	1:22:27	Zumarraga	4785	Alvarez Iñaki	1:41:50	Zumarraga
1131	Alustiza Iñaki	1:23:44	Zumarraga	4951	Quebedo Gorka	1:42:28	Zumarraga
1213	Corera Jon Ander	1:24:16	Zumarraga	5001	Agirrezabal Aitor	1:42:42	Urretxu
1246	Gallardo Oscar	1:24:26	Zumarraga	5570	Telleria Mikel	1:45:03	Zumarraga
1568	Iurrebaso Jose Mari	1:26:25	Urretxu	5753	Erostarbe Javier	1:45:57	Zumarraga
1733	Martinez Jesus Mari	1:27:19	Urretxu	5777	Urretabizkaia Beñat	1:46:01	Zumarraga
1871	Cuñado Jesus Mari	1:28:06	Zumarraga	5932	Zufiaur Xabier	1:46:43	Zumarraga
1932	Muga Iñaki	1:28:25	Zumarraga	6049	Lizarazu Iñaki	1:47:18	Urretxu
1994	Menor Joaquin	1:28:43	Urretxu	6243	Bastarrika Mikel	1:48:02	Urretxu
2029	Urkiola Iñaki	1:28:57	Urretxu	6374	Lasa Jose Mari	1:48:44	Urretxu
2055	Bergara Nikolas	1:29:06	Zumarraga	6416	Movellan Miguel Angel	1:48:49	Zumarraga
2222	Rueda Juan Carlos	1:29:57	Zumarraga	7220	Sanchez Jose Antonio	1:52:48	Zumarraga
2857	Perez Patxi	1:33:27	Urretxu	7250	Etxezarreta Angel	1:52:58	Urretxu
2899	Cristobal Miguel	1:33:38	Urretxu	7256	Albisua Luis	1:53:12	Urretxu
2900	Agirre Iñigo	1:33:38	Zumarraga	7286	Lasa Xabier	1:53:21	Urretxu
3177	Fernandez Luis	1:34:46	Urretxu	7354	Lasa Jose Luis	1:53:44	Zumarraga
3448	Torres Luis Mari	1:36:02	Urretxu	8380	Lasa Eli	2:00:55	Urretxu



Aintzane Arizmendarreta

✓Zer izan nahi zenuen umetan?

Ez dakit, beharbada irakaslea edo erizaina.

✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?

Beroa.

✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Dantzatzea.

✓Kolore bat?

Gorria

✓Ze opari hartuko zenuke gustura?

Bidaia bat.

✓Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Bernardo Atxaga

✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?

Juerga eginda nekatuz gero gustora gero atsedena hartu.

✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?

Dena batera aldatuko nuke. Flakatu nahiko nuke, baina...

✓Nora begiratzen diozu lehenik mutil bati?

Arpegira begiratzen diot lehenik.

✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?

12 urtetik gorako gaztetxoentzako toki bat. Bestalde eskoletan herriko dantzak erakutsi beharko lirateke, gure ohiturekin jarraitzeko.

✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?

Bidegorria

✓Zumarragan ezik non biziko zinateke gustura?

Mutrikun, Bartzelona ere gustatzen zait.

✓Zein da duzun ohiturarik txarrena?

Beti jateko prest egotea

✓Bete gabeko amets bat?

Euskal dantzen dantzaria

✓Musika entzuteko, dantzatzeko, jotzeko ala kantatzeko?

Danerako.

✓Kantu bat.

Lau teilatu

✓Zain egon ala besteak zure zain?

Ez bata ez bestea, puntualitatea gustatzen zait.

✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?

Amistadea, leialtasuna...

✓Norengatik joango zinateke azken muturre-ra?

Nire seme alaba eta senarrarengatik.

✓Gaua ala eguna?

Momentuaren arabera

✓Lo egiteko zer?

Liburu bat aldamenear

✓Gustoko janari bat?

Marmitakoa

✓Ura, ala...

Momentuaren arabera

✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun hori?

EGA ateratzeko gogoia dut...

MASTER HEZKOR
CADENA

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa:72 24 00

PUBLIZITATEA

☎ 72 57 75

Ostadar mendi taldea

✓ Mendiari buruzko kultur astea

● Azaroak 28: **Pirinioak, elurra eta izotza.** Joseba Ugalde Egañak eta Carlos Vieirak eskainitako diapositiba emanaldia. Zumaragako Zelai Aristi ikastetxeko ekintza aretoan, iluntzeko 20:00etan.

● Azaroak 29: **Ostadar Mendi Taldearen Batzar Nagusi Orokorra.** Kultur Etxean izango da iluntzeko 19:30etan.

● Azaroak 30: **Loikizerako ibilaldia (Galdeano-Biloria).** Irteera goizeko 7:00etan izango da Zumaragako elizatik. Acedon bazkaltzeko aukera izango dute mendizaleek.

Lurra dantza taldea

Azaroaren 14an hasita, ostirale-
ro gaueko 19etan Ginzuri ikas-
tetxean **arin arin eta fandango**
ikastaroa doan, Urretxuko Lurra
dantza taldeak antolatuta.

Erakusketa

✓ **Azaroaren 28tik abenduaren 8ra,** Itarte Etxean, **Javier Fernandez** argazkilarri profesionalaren argazki erakusketa. 30 argazki lamina izango dira ikusgai, bertan paisaiak nahiz animaliak ikusi ahal izango dira.



● Zorionak! Danel ze handia egiten ari zaren! Ondo pasatu! eta berriro **ZORIONAK!**

● Gure gaztain txikiarentzako. Bere 19. urtebetetzean Zorionak, zure koadrilakoen partetik. **ZORIONAK OLAIA!!!**




Mutua General de Seguros

Iparragirre, 11 URRETXU tel:722599

...baina harroago gurekin hain pozik dauden bezeroak izateaz


KALEBARREN 1 TEL. 72 50 22 ZUMARRAGA



Lagun Aroren 10 aseguratuetatik 9k kalitate/prezio erlaziorik onena dutela uste dute.



Istripuren bat izan duten Lagun Aroren bezeroen %94k azkar eta eraginkortasunez konpondu dutela adierazten dute.



Konpainiaren kaudimen, konfiantza, sendotasun, azkartasun eta berrikuntza mailari dagokionez, Lagun Aroren bezeroek "oso ona" edo "bikaina" erizten diote.